

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

ONDARE ZERBITZUA

Lizitazio publikoa Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egoitza-harrerako programetarako higiezin bat lehiaketa bidez alokatzeko

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuaren apirilaren 29ko 237/2026 Foru Aginduaren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egoitza-harrerako programetarako higiezin bat alokatzeko lizitazio publikorako deialdia onartu da, baita lizitazio hori arautuko duten baldintzen agiriak ere. Hona hemen deialdiaren funtsezko edukia:

- Deialdiaren xedea: Vitoria-Gasteizen dagoen ondasun higiezin bat errentan hartzea egoitza-harrerako programa bat garatzeko.
- Lizitazio-tasa: hileko 3.000,00 euro, BEZa eta komunitate-gastuak barne.
- Kontratuaren iraupena: bost urte, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.
- Bermea: lizitaziora aurkeztu ahal izateko, 1.000,00 euroko behin-behineko fidantza jarri beharko da.
- Baldintzen plegua. Interesdunen eskura dago helbide honetan:
 - Ondare Zerbitzua (Samaniego kalea 14, 4. solairua, Vitoria-Gasteiz).
 - Arabako Foru Aldundiaren webgunea: www.araba.eus.
- Proposamenak aurkezteko lekua.

Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorra (Probintzia plaza, 5-behea, Vitoria-Gasteiz). Proposamenak postaz ere bidali ahal izango dira, Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorraren 80. artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Eskaintzak aurkezteko epea.

Hilabete bat, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, epea amaitzen den eguneko 14:30ak arte, salbu eta jaieguna bada; kasu horretan, hurrengo egun baliodunera arte aldatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 4a

Ondare Zerbitzuko burua
JAVIER RAMOS MURUAGA